

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 26/2024 Foru Dekretua, abenduaren 17koa. Onespena ematea Arabako Kultura Batzordea sortzeari

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak, bere egitura organikoa eta funtzionala onartu zuen Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 22ko 9/2022 Foru Dekretuak xedatutakoari jarraikiz, besteak beste, honako eskumen hauek ditu: artxibo eta liburutegiak, museoak, zaharberritzeak, Kultur Etxea, hezkuntza sustapena eta kultura zabalkundea, argitalpenak, eta ondare historiko, artistiko eta arkitektonikoa.

Eskumen horiek baliatuz, Foru Gobernu Kontseiluak 2023-2028 aldiko Arabako Kultura Plana onartu zuen otsailaren 28ko 196/2023 Erabakia dela bide. Lurraldeko kultura ingurumaria aztertu eta 2017-2020 aldiari doakion aurreko plan estrategikoa ebaluatu ondotik, esan dezakegu kultura plan berri hau aurrekoaren zehaztapena dela, plana abiarazi behar duten eragileek estrategia landuagoak eta gauzagarriagoak proposatu dituztela.

2023-2028 Arabako Kultura Planaren oinarria kulturarako eskubidearen kontzeptua kultura politiketan aplikatzean datza, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an aldarrikatu zuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren ikuspegi garaikideari loturik. Horrela, Arabako Foru Aldundiak lurraldean darabiltzan kultura politikak bideratzen eta gidatzen dituzten 9 ildo estrategiko nagusiak epe ertain eta luzera ikusarazteko dokumentua izan nahi du. Bederatzi ildo horiek bat datoz aipatutako kulturarako eskubideekin, eta, aldi berean, planaren jardute aldi osoan garatu beharreko zenbait jardueratan banakatzen dira:

1. ildo estrategikoa. Kultura eskura izateko eskubidea.
2. ildo estrategikoa. Kulturarako eskubidea lurraldetik.
3. ildo estrategikoa. Sortzeko eskubidea.
4. ildo estrategikoa. Memoriarako eskubidea.
5. ildo estrategikoa. Parte hartzeko eskubidea.
6. ildo estrategikoa. Hizkuntza eskubideak.
7. ildo estrategikoa. Eskubide digitalak.
8. ildo estrategikoa. Lan duina izateko eskubidea.
9. ildo estrategikoa. Antolaketa eraginkorra izateko eskubidea.

Azaldu dugun esparruan, bosgarren ildo estrategikoa, "Parte hartzeko eskubidea" izenekoa, Kultura Planak dakarren proposamenaren ardatz nagusietako bat da. Ildo estrategiko horrek kultura politikak taxutzerakoan, herritarrek eduki duten parte hartzeko eskubidea eta sustapena aitor-tzeaz dihardu, pertsonak eta gizataldeak gizarte bizitzan ahalduzko tresnatzat hartuta. Zehatzago esanda, ildo estrategiko horrek izaera xeheagoa du 5.1 jardueran, hizpide darabilgun planaren 2023-2024 ibilbide orrian jasota baitago, eta, gainera, Arabako Kultura Batzordea sortzeari buruzko aipamena egiten du. Organo hori kontsulta eta aholku organoa da, eta helburua da partaidetza gune eraginkorra izan dadin, Arabako kulturaren sektore osoa (erakundeak, enpresak eta elkarteak) nahitaez ordezkatu behar duena.

Lurraldeko kultura politiketan gogotik eragin nahi bada, partaidetza organo bat izateak sektorearen engaiamendua sustatzen du. Dagoeneko martxan dauden ekimen parte hartzaile ugari erakutsi dute herritarrak inguruko gizarte eta kultura dinamiketan esku hartzen dutenean, areago arduratzen dela inguruko eta gertuko ekimenez. Era berean, herritarren parte hartzeko eskubidea bermatzeko modu eraginkorra da. Gaur egungo testuinguruan, batez ere, kulturaren sektorean, politikak taxutzean ikuspegi desberdinen ekarria erraztea eta herritarren nahiz sektoreko eragileen konpromisoa sustatzea ia-ia nahitaez garatu beharreko estrategia da.

Hasierako proposamenetik abiatuta, Arabako Kultura Batzordea hausnartzeko, eztabaidatzeko, elkarrizketa lantzeko eta ekintza bideratzeko gunetzat hartu behar dugu. Parte hartze eraginkorra bermatzen duen espazioa izan behar du, ilusioa, ideiak, elkarreragina eta jarduera zehatzak sustatzen dituena. Gune horretan, Arabako Foru Aldundiak kontuak errendatu beharko ditu Arabako kultura sektorearen aurrean, kultura politiken arloan, eta, aldi berean, lurraldeko eragile publiko, pribatu eta elkarleen aniztasunaren bozgorailu izango da, Kultura Planetik datozen jarduerak gauzatzeari dagokionez, foru administrazioa orientatzeko xedez.

Era berean, Arabako Kultura Batzordearen asmoa da izaera zehatza duten partaidetza guneak sortzea, gobernu organoen eta kultura azpisektore bakoitzeko eragile guztien arteko harreman zuzena, etengabea eta noranzko bikoia errazteko helburuz. Horrela, proposamena da, Osoko bilkuraz gain, aldi berean, mahai sektorialeak eta lurralde koordinaziorako mahai iraunkorrak ere osatzea. Gainera, organo horien guztien eginkizunak eta printzipio gidariak arautu dira.

Azkenik, benetako berdintasuna sustatzeari gagozkiola, parte hartzeko gune horietan, proposamenetan zein lantaldeetan, emakumeek kulturaren eremuan dituzten baldintzak, egoerak eta beharrak sistemaz aintzat har daitezzen bultzatuko da. Une oro ahalegindu beharko da emakumeek erabaki guneetan parte har dezaten, sexuagatiko zeinahi diskriminazio arrazoiz bazterturik.

Eskumenen eremuari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 3., 24.2 eta 37. artikuluek Arabako Lurralde Historikoari aitortzen diote ahalmena duela bertako erakundeak askatasunez antolatzeko eta horien funtzionamendua artezten duten beharrezko arauak eman ahal izateko. Hala berean, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.1 artikulua ezartzen duenez, lurralde historikoetako foru organoek eskumen eskusiboa dute beren foru organoen antolaketan, araubidean eta barne funtzionamenduan.

Aurrekoaz gain, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauaren 17. artikulua 2. paragrafoak xedatutakoari jarraituz, Arabako Foru Aldundiari dagokio antolaketarako barne erregelamenduak onartzeko ahalmena, eta foru dekretuak onartzeko ahalmena emanda, Foru Gobernuaren Kontseiluari esleitzen dio erregelamenduak egiteko eskumen hori.

Honako dekretu hau izapidetzean, xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikulua xedatutako erregulazio onaren printzipioak bete dira. Horrela, azaldu ditugun aurrekarietan, behar bezala justifikatu da erregulazioaren beharra, eta, gainera, araugintzako jardura neurrizkoa izan da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienez mugatu baita. Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatu da, behar bezala justifikatu baita, alde batetik, printzipio horren txertatzea ordenamendu juridikoan, eta bestetik, printzipio hori ematen duen organoaren gaikuntza.

Gardentasun printzipioaz denaz bezainbatean, esan behar da ez dela printzipio hori urratu, aurretiazko kontsulta publikoaren eta entzunaldiaren zein jendaurreko informazioaren izapideetatik salbuetsita baitago, antolaketaren inguruko eduki hutsa baitakar.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatu den arauketak, bere izaera dela-eta, ez dakar zama administratibo osagarri edo alferrikakorik herritarrentzat, ezta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere.

Azkenik, araugintza jarduera bakuntasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei eta kontu emateko printzipioari lotuta dago.

Nahitaezko txostenak ikusirik, Kultura eta Kirol diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Sorrera eta xedea

Honen bidez, Arabako Kultura Batzordea sortu da, Arabako Foru Aldundian kulturaren arloko eskumena duen sailari atxikitako kide anitzeko organo gisa, Kultura Zuzendaritzaren bitartez.

Batzordea lurralde historikoaren kultura garapenari laguntzeko tresna da, eta gogoeta, eztabaida, elkarrizketa eta ekintza sustatzeko gune gisa egituratu da, Arabako kulturaren sektoreko erakundeak, enpresak eta elkarteak ordezkatzeko dituen. Parte hartzeko gune eraginkorra denez, ilusioa, ideiak, elkarrekintza eta jarduera zehatzak sortuko ditu.

2. artikulua. Baliabideak

Arabako Foru Aldundian, kulturaren arloko eskumena duen sailak beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak emango dizkio, behar bezala funtziona dezan.

3. artikulua. Lurralde eremua eta egoitza

Batzordearen lurralde eremua Arabako Lurralde Historikora eta Trebiñu Konderrira hedatzen da, eta batzordearen egoitza kulturaren arloan eskumena duen sailean du, batzarrak Arabako beste edozein herritan egiteko aukera ezertan eragotzi gabe.

4. artikulua. Eginkizunak

Batzordeak eginkizun hauek ditu:

- Arabako Foru Aldundiari kulturaren arloan aholku ematea.
- Kulturari eta arteei buruzko eztabaida eta ezagutza sortzea, Arabako Lurralde Historikoko kultura politiken esparruan, genero ikuspegia kontuan hartuta.
- Oro har, kultura politiken formulazioa, aplikazioa eta ebaluazioa, eta bereziki indarrean dauden kulturaren plan estrategikoak erkatzen jarraitzea.
- Kulturaren arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan aritzea Arabako Lurralde Historikoan kultura jarduerak eta programak diseinatu, ebaluatu eta horien jarraipena egiteko xedez.
- Kulturaren eta kultura politikaren arloan txostenak egitea, irizpenak ematea eta gomendioak ematea, bai batzordearen ekimenez, bai Arabako Foru Aldundiak eskatuta.
- Kulturaren edo artearen politikan eragina duten arauzko eta erregelamenduzko proiektuei buruzko txostenak egitea, aurrekontu proiektuak ere aintzat hartuta, bai eta plan estrategiko, sektorial eta zeharkakoei buruzkoak ere.
- Ordenamendu juridikoak esleitzen dion edo Arabako Foru Aldundiak agintzen dion beste edozein eginkizun; eta, bereziki, kultura politikei kulturarako eskubidearen kontzeptua aplikatzearekin zerikusia dutenak, bai eta 2030 Agendatik eratorritako printzipio, konpromiso eta gomendioei lotutakoak ere.

5. artikulua. Printzipio gidariak eta lan irizpideak

Batzordearen jarduerak honako printzipio gidari hauek bete beharko ditu:

- Arabako kultura sektorearen ordezkagarritasun handia, sektorea osatzen duten eragileen aniztasuna, lurraldeen eta belaunaldien arteko oreka eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunarekiko konpromisoa kontuan hartuta.

b) Arabako Foru Aldundiari informazio argia eta etengabea helaraztea, landutako gaietan lan eraginkorra bermatzeko.

c) Batzordearen ekarpenek lurraldeko kultura-politiketan duten benetako eragina.

d) Jarraitutasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzea batzordearen barruan gauzatutako prozesuetan.

e) Lantzen diren gaien lotutako kultura erakundeei edo parte hartzen duten eragileei informazioa helarazteko bermea.

Era berean, Arabako Kultura Batzordeak honako lan irizpide hauek bete beharko ditu:

a) Helburuen argitasuna. Lan helburu espezifikoak ezarriko dira, ezarritako helburuak benetan betetzen direla bermatzeko.

b) Dokumentazio eskuragarria. Sistema bat ezarriko da, parte hartzaileei Kultura Batzordearen lan-prozesuen esparruan sortzen diren dokumentu guztietarako sarbidea bermatzeko, hala nola aztergaien zerrendetan, aktetan, txostenetan eta antzekoetan.

c) Komunikazio erraztailea. Komunikazio protokolo bat zehaztu eta helaraziko da. Protokolo horrek bermatuko du parte hartzaile guztiek egutegiari, landu beharreko gaien, akordioei eta antzekoiei buruzko informazioa eskura izango dutela.

II. KAPITULUA

Osoko bilkura

6. artikulua. Kontzeptua

Osoko bilkura Arabako Kultura Batzordearen gobernu eta ordezkari organoa da. Osoko bilkurari dagokio batzordearen helburuak betetzea, bai eta printzipio gidariak eta lan irizpideak errespetatzea ere.

7. artikulua. Osaera

1. Honako hauek osatuko dute Osoko bilkura:

a) Presidente.

b) Presidenteordea.

c) Idazkaria.

d) Kulturaren arloan eskumena duen zuzendaritzako zerbitzaburuak diren bi pertsona.

e) Kultura kudeaketaren arloan eskumenak dituzten bi pertsona, Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerrri eta kuadrillaren ordezkari gisa.

f) Arabako Kultura Batzordearen Osoko bilkuraren osagarri gisa osatzen diren mahai sektorial bakoitzeko bi ordezkari, gutxienez.

2. Osoko bilkurako berezko karguak hauexek izango dira:

a) Presidente, Arabako Foru Aldundian kulturaren arloko eskumena duen saileko titularrak izango dena.

b) Presidenteordea, Arabako Foru Aldundian kulturaren arloko eskumena duen zuzendaritzako titularrak izango dena.

3. Osoko bilkurako kide guztiek izango dute hitza eta botoa izateko eskubidea, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

4. Presidenteak adituak eta eskarmentu handiko pertsonak gonbidatu ahalko ditu Osoko bilkuretara, aztertu beharreko gaiak direla eta egoki baderitza. Adituek hitza izango dute, baina botorik ez.

5. Osoko bilkurako kideak, norik betetzen duen karguaren arabera, izendatutako karguak betetzen dituzten artean izango dira kide.

6. Kultura Batzordearen Osoko bilkuraren osaeran, ordezkariak orekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarak Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikulua xedatutakoa betez. Gainera, batzordeko kideetako batek, gutxienez, egiaztatu beharko du esperientzia edo prestakuntza duela feminismoetan edo emakumeen eta gizonen berdintasunean.

8. artikulua. Osoko bilkurako kideak izendatzea eta kargua uztea

1. Berezko karguak izan ezik, Osoko bilkura osatzen duten kideak izendatzeko eta kargu uzteko erabakiak Arabako Foru Aldundian kulturaren arloko eskumena duen saileko titularraren foru aginduaren bidez emango dira.

2. 7. artikulua lehenengo paragrafo e) eta f) idatz zatietan aipatzen diren ordezkarien hautaketa sektoreari kontsulta egin ondoren egingo da, eta, nolahi ere, irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Aniztasuna. Profilen aniztasuna zainduko da, kultura eta sormen esparruko azpisektore eta eragile guztiak modu orekatuan ordezkaturik. Belaunaldien arteko ordezkariak ere sustatuko da.

b) Lurralde oreka. Populazio desoreka handia duen lurralde batean, hala nola Arabako lurraldean, lurralde historiko osoa hartzen duten ordezkarien aniztasuna bermatuko da, ez soilik Gasteizko hiriko ordezkariak.

c) Kultura esparruarekiko harreman estua. Ordezkariek bakoitzak berari doakion kultura eta sormen azpisektorearen ezagutza handia izango du, eta harekiko komunikazio jarraitua eta arina izateaz arduratuko da, dena delako mahai sektorialaren bitartez.

d) Zeharkako ikuspegia. Ikuspegi zabala, irekia eta zeharkakoa beharko da, bai eta kultura sektorearen alderdiak eta beste jarduerak esparru batzuekiko harremana ulertzeko eta horiek jorratzeko gaitasuna ere.

e) Diziplinartekotasuna. Profil osagarriak dituen Kultura Batzordea aldeztuko da, kultura sorkuntzan eta kudeaketan esperientzia duena. Sektorearen ikuspegia islatzen duten profilak izan beharko dute, balio katearen zenbait begi aintzat hartzen dituztenak.

f) Komunikatzeko gaitasuna. Ordezkariek komunikatzeko eta entzuteko gaitasuna izan beharko dute, sektoreko arazoak barnera ez ezik, administraziora ere helarazi ahal izateko, betiere ikuspegi individualista saihestuz.

g) Elebitasuna. Arabako egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, batzordearen jarraipena euskaraz zein gaztelaniaz egiteko gaitasuna bermatuko da. Euskaraz ulertzen ez duten pertsonen dagokienez, parte hartzeko konpromisoa hartuko da, hala nahi duenak euskaraz jardun ahal izango duela bermatzeko ezartzen diren tresnen bidez.

h) Konpromisoa. Batzordearen eginkizunetan gogoz parte hartzeko prestasun handia erakutsi beharko da.

3. Osoko bilkurako kideek arrazoi hauen zioz utziko dute kargua:

a) Uko egitea.

b) Heriotza.

c) Osoko bilkurako kide izendatzeko arrazoi izan zen kargua uztea.

d) Hautatuak izan zireneko aldia amaitzea, berriro hautatuak izateko aukera ezertan eragotzi gabe.

- e) Desgaikuntza, ezgaikuntza judiziala edo bateraezintasuna, legeak ezarritakoaren arabera.
- f) Kargua ordezkari leial baten arduraz ez betetzea.
- g) Osoko bilkurak gehiengo osoz erabakitzea, presidenteak edo kideen heren batek proposatuta, bere eginkizunak behin eta berriz ez betetzean oinarrituta.

9. artikulua. Karguan aritzeagatiko konpentsazioa

Osatzen diren mahai sektorialetako ordezkari diren Osoko bilkurako kideek konpentsazioak sortu ahalko dituzte.

10. artikulua. Batzordeburua

Arabako Foru Aldundian kulturaren arloko eskumena duen saileko titularra izango da batzordeburua, edo hark eskuordetzen duena.

Batzordeburuak Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gorenaren izango du batzordean. Berari dagozkio, besteak beste, Osoko bilkuren deialdiak egitea eta horietan buru jardutea, kalitatezko botoa erabiltzea berdinketa gertatuz gero, eta Osoko bilkurak eman diezaiokkeen beste edozein eginkizun egikaritzea.

11. artikulua. Batzordearen buruordea:

Batzordearen buruordea Arabako Foru Aldundian kulturaren arloko eskumena duen zuzendaritzako titularra izango da, edo hark eskuordetzen duena.

Buruordeari egokituko zaio batzordeburua ordezkatzeko, hura ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, batzordeburuari laguntzea batzordean dituen zereginetan, eta eskuordetzen zaizkion eskuduntza guztiak betetzea.

Buruordea lurralde koordinaziorako mahai iraunkorreko presidentea izango da.

12. artikulua. Idazkaria

1. Batzordearen idazkaria Arabako Foru Aldundian kulturaren arloko eskumena duen saileko teknikari letratu bat izango da.

2. Idazkaritzako arduradunak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Batzordeburuaren aginduz, Osoko bilkuretarako deialdia egitea.
- b) Osoko bilkuretan beharrezkoa den dokumentazioa prestatzea.
- c) Osoko bilkuretan parte hartzea eta karguari datxezkion eginkizunak betetzea, hitzarekin baina botorik gabe.
- d) Osoko bilkuretako aktak idaztea.
- e) Batzordeak egin edo emandako erabakien, txostenen, irizpenen, gomendioen eta antzekoen ziurtagiriak prestatzea.
- f) Batzordearen jardueren legezkotasuna zaintzea, eta gainerako organoei laguntzea beren eginkizunak betetzen.

III. KAPITULUA

Mahai sektorialak eta lurralde koordinaziorako mahai iraunkorra

13. artikulua. Mahai sektorialak

1. Arabako Kultura Batzordearekin batera, mahai sektorialak Arabako kultura ehunean dauden kultura eta sormen azpisektore guztien langune espezifiko gisa eratu dira. Mahai horiek azpisektore osora zabalik egongo dira, Arabako kultura sektore osoak lurraldeko kultura politikan eragin zuzena izango duela bermatzeko.

2. Harreman etengabea eta bi norabidekoa izango dute Arabako Kultura Batzordearen Osoko bilkurarekin, baina ez dira batzordearen egituran txertatuko, eta, hala, independentzia izango dute batzordearen egituran eta jardunbidean. Nolanahi ere den, Osoko bilkuran parte hartzen duten kultura eta sormen azpisektore guztietako ordezkariak gogoz parte hartu beharko dute nori doakion mahai sektorialean.

3. Mahaien osieran, kultura arloan eskumena duen foru saileko teknikarien parte hartzea bermatuko da, dena delako azpisektorearen antzeko zerbitzuetako teknikariena, hain zuzen.

4. Osatzen diren mahai sektorialen kopurua eta izena erregelamendu bidez zehaztuko dira.

5. Hauexek dira mahai sektorialen eginkizun eta helburu nagusiak:

a) Baterako topagunea sortzea, irekia, Arabako kultura eta sormen azpisektore guztiak osatzen dituzten eragile guztientzat.

b) Kultura eragileen arteko lan sareak eratzea.

c) Azpisektore bakoitzaren egoera espezifikoki buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko gunea bat sortzea.

d) Dena delako azpisektorean dauden kezka eta premia guztiak Arabako Kultura Batzordeari berriaz helarazten laguntzea.

e) Arabako Kultura Batzordearen Osoko bilkuraren eta Arabako kultura sektore osoaren arteko etengabeko eta bi norabideko lotura izatea, izendatzen diren ordezkarien bitartez.

Eginkizun horiez gain, mahaien helburuak, eskudantziak eta funtzionamendu espezifikoa horietako bakoitzaren barruan adostuko dira, betiere ikuspegi feminista edo genero ikuspegia kontuan hartuta, eta erregelamendu bidez onartuko.

14. artikulua. Lurralde koordinaziorako mahai iraunkorra

1. Lurralde koordinaziorako mahai iraunkorra kulturaren arloan eskumena duen foru saileko eta kultura kudeaketaren arloan eskumenak dituzten Arabako Lurralde Historikoko udalerrri eta kuadrilletako lantalde teknikoaren arteko topagunea da.

2. Lurralde koordinaziorako mahai iraunkorraren helburuak honako hauek dira:

a) Arabako toki administrazio guztietan kultura kudeaketaren arloan eskumenak dituzten talde teknikoaren arteko aldizkako harremana ziurtatzea.

b) Kulturaren arloko politika publikoei buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko gunea sortzea.

c) Arabako kultura eta sormen sektore osoaren arteko harremana errazten duen kultura eragileen sarea sortzen laguntzea.

d) Politikak eta programazioak koordinatzea, Arabako ehun soziokulturalaren aldeko irizpide erkideak ezarriz.

e) Arabako Foru Aldundiaren kultura programazioetan dauden hutsuneak aztertzea, eta hobetu beharreko alderdiak eta arloak adieraztea.

f) Lurraldea deszentralizatzen laguntzea.

g) Oro har, Arabako kultura politikak diseinatzen eta hedatzen laguntzea, bai eta politika horietatik eratorritako jardueretan ere, ikuspegi feminista edo genero ikuspegitik.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indargabeturik geratzen dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, Gobernu Kontseiluaren martxoaren 27ko 16/2018 Foru Dekretua eta Gobernu Kontseiluaren abenduaren 11ko 62/2018 Foru Dekretua.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Foru dekretu hau indarrean hasi eta 6 hilabeteko epean, Foru Gobernu Kontseiluak Arabako Kultura Batzordearen eta hari lotutako edo atxikitako organo guztien funtzionamendu erregelamendua onartuko du.

Bigarrena. Kultura arloan eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaio foru dekretu honetan xedatutakoa betearazteko.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengoan hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

MARÍA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE